


**2021-2024
PLAN
ESTRATEGIKOA**

Hiru ardatzen inguruan egituratzen da Euskadiko Parke Teknologikoaren jardura: Haztea – Laguntzea – Eragina izatea, 8 ildo estrategikoren bitartez: Hedapen geografikoa eta espezializazioa, Negozioaren hedapena, Smart azpiegiturak eta azpiegitura jasangarriak, **Gizarteari ekarpena egitea**, Aliantzen Sarea, Antolaketa Eredua, Zerbitzu Bereizgarriak eta Parke Marka.

**GIZARTEAREKIKO
GURE KONPROMISOA**

■ Parkeko liderrek gizartearekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuak garatzearekin duten konpromisoari dagokion plana prestatzeko eta plan hori interes-talde guztiei jakinarazteko konpromisoa dute. Estrategian txertatuta dago gizartearekiko konpromisoa, eta hainbat adierazleren eta balantze sozialaren Monetizazioaren azterketaren bitartez ebaluatzen da eta neurtzen da bere eragina.

Egun dituen gaitasunei eta gizartearen beharrei buruz hausnartu ondoren, Parke Teknologikoa funtsezko eragile bilakatu da euskal gizartearekiko enpresa-loturan nahiz lotura teknologikoan. Zientziaren eta Teknologiaren balioa zabaltzen du eta emakumeak eremu horretan duen rola indartzen du, etorkizuneko bokazioak nahiz espezializazio handiko talentua sortzen ditu, Euskadirentzat hazkunde ekonomikoa zein ongizatea ekarriko duten ekosistemekin lerrotatuta

673Enpresa-unitate,
ikerikuntza-erakunde eta
zentro teknologiko**23.674**

Langile

8.243 M€Guztizko
fakturazioa**754 M€**Ekarpen ekonomikoa,
I+Gerako**33%**I+Gerako gastua
Euskadin

Datos 2023

■ Gizartearen gogobetetasuna (2024): **8,76**■ Aliatuen gogobetetasun orokorra (2024): **8,79**■ Bezeroaren gogobetetasuna BeParke ekimenak Parkea bizitzia-ekosistema gisa garatzeko eskaintzen dituen zerbitzuekin (kirolaren, kulturaren eta gizartearen arloko ekimenak, Parkerako Erronka, etab.) (2024): **8,51****BEParke**

GIZARTEAREKIKO ARDURATSUA DEN ERAKUNDE SENDOA BILAKATU DA

1. Hurbileko gizarte-ingurunearekiko konpromisoa**Bizitzia-ekosistema:**

BeParke Kluba garatea, aisialdirako, kulturarako eta kirolerako eta osasunerako gunea, Parkean dauden enpresa eta erakunde guztietan lan egiten duten guztiei zuzendua.

Ingurune ko kultura, kirol eta gizarte elkarteak **babestea**.

2. Gobernatze Ona sustatzea**Kode Etikoa.**


Administrazio onaren eta etika publikoaren printzipioen arabera kudeaketa.

Gardentasun-eredu finkatua.**Compliance.****3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana**


Parkeko gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko duen estrategia zehazten duen plana. Zuzendaritza taldearen konfigurazioa parekidea izan dadin eta **Parkean indarkeriarik eta jazarpenik gabeko lan espazio seguru** izatearen aldeko apustua.

4. Euskara Plana

Euskara sustatzeko lantaldea, SPRI taldearekin koordinatuta.

k·mediaKANPO KOMUNIKAZIOA,
PARKEKO ENPRESA-ERREALITATEA SUSTATZEKO

Euskadiko Parke Teknologikoak funtsezko zeregina betetzen du gizartearekiko komunikazioan, bere ekosisteman garatzen diren aurrerapen zientifiko, teknologiko eta enpresarialen ezagutza eta dibulgazioa sustatuz eta ingurunean eragin positiboa sortzen duten ekimenen hedapena bultzatuz. Gainera, aktiboki egiten du lan bokazio zientifiko-teknologikoak ikusarazteko ekimenak zabaltzen, bereziki gazteen artean, eta indartu egiten du emakumeari zientzian eta teknologian laguntzeko konpromisoa, eremu horietan berdintasun eta aniztasun handiagoa sustatuz.



Gure eginkizuna Parkeko errealitatea zabaltzea eta berrikuntza nahiz teknologia Euskadiko pertsonen egunerokora hurbiltzea da.

347Albiste argitaratu dira
webgunean**24**Enpresa-buletin
bidali dira**4**Euskotek aldizkari
argitaratu dira**k·future**

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIAK GIZARTEARENTZAT DUTEN BALIOA ZABALTZEAK

**Teknologia
disruptiboak**

Paradigma teknologikoen aldaketak gizarteari zabaltzea eta aurreratzea. Topaketetan honako gai hauek jorratu dira: IoT, Zibersegurtasuna, Blockchain, Big Data, Konputazio kuantikoa, 5G eta Robotika

**k·talent**EMAKUMEA ZIENTZIAN ETA
TEKNOLOGIAN NAHIZ ENPRESAN
DUEN BALIOA SUSTATZEA

590 parte-hartzaile eta emakumeek zientzian, teknologian eta berrikuntzan duten zereginaren alde egindako edo lagundutako **20 ekintza**, horien artean:

- **Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna** (otsailaren 11n): Parkeko 211 emakume-profil, webgunean eta sare sozialetan argitaratuak. Emakumeak Zientzian proiektuarekin lankidetzat Gipuzkoan.
- **Inspira STEAM proiektua**: Parkeko 56 profesionalak mentore eginkizunetan hartu dute parte.
- **Talent Woman programa**.
- **APTEren Zientzia eta Teknologia Femeninoan proiektua**: 550 parte-hartzaile baino gehiago 2024an.
- **Parkeko emakume zientzialariak eta teknologoak ikusaraztea**: komunikazio- eta ikusarazte-kanpainak, zientzia eta teknologiko emakumeen foroetan parte hartzea.

GAZTEEN ARTEAN BOKAZIO
ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOAK ZABALTZEN
ETA BULTZATZEN LAGUNTZEA

Bokazio zientifiko-teknologikoak bultzatzea, **2.280 ikasle** baino gehiagorengana iristeko eta **18 ekintza** burututa:

- **FP/Parke ekimena**: Ikaslan-ekin, Hetele-ekin eta erreferenteak diren eta gure gazteen sensibiltzazioarekin konprometitu dauden Parkeko enprekin lankidetzan. 945 ikasle hartu dute parte.
- **Bokazio zientifikoaren APTEren proiektua**: bokazio zientifiko-teknologikoen hedapena gazteen artean.
- **Kanpamendu teknologikoak**: eskolarik gabeko aldietan Parkeko enpresetako langileen familia bizitza eta bizitza profesionala uztertzea dute helburu.
- **“Egun bat parkean”**: 460 ikasleren bisitak. Ikasekiten programa.

**GJH**

Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin lerrotatuta dago Plan Estrategikoa, eta Nazio Batuen Agendak sustatzen dituen **Garapen Jasangarrirako 17 helburuetatik (GJH) 14 lortzen** laguntzen du.

Hauexek dira Parkek gehien laguntzen dituen GJHak: 8.a (Lan duina eta hazkunde ekonomikoa) eta 9.a (Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura).

GJHen aldeko Nazio Batuen Mundu Itunari eta Euskal Aliantzari atxikita.

JMIUP

Ekonomia zirkularreko ekimenak bultzatu dira, mugikortasunaren, irisgarritasunaren eta jasangarritasunaren inguruko plan espezifikoek garapenaren arabera.

Mugikortasun jasangarria: ibilgailu elektrikoak kargatzeko 75 puntu jarri dira abian.

Karbono aztarna murriztea (1. eta 2. irismena): % 88,72 2019tik (167 tona baliokide CO2 atmosferara isurtzea saihestu da).

Jasangarritasun foroek aurrera jarraitu dute 3 lurralde historikoetan.

Finkatu egin da **ibilgailu partekatuen erabilera** sustatzeko den ParkeCarpool ekimena.

PARKE BERDEA

Jasangarritasun estrategia jardura eta proiektu guztietan txertatzea, **energia trantsizioa eta neutraltasun klimatikoa bultzatuz**, lehendik dauden eraikinetan eta eraikin berrietan egiten diren jarduketan bidez, energia kontsumoa murriztea lortzeko eta energia autosufizientzia ahalbidetzeko.

Enpresen artean zabaltzea eta bultzatzea, energia kontsumoa murrizteko, energia berriztagarriaren erabilera handitzeko eta CO² emisioak murrizteko

Konpromisoak:

- 2030. urtea: Energia kontsumoa % 35 murriztea eta energia berriztagarrietatik datorren autokontsumoa % 32 handitzea.
- Klima neutraltasuna 2030ean (1. eta 2. irismena karbono aztarna).
- 2050. urtea: energia kontsumoa % 60 murriztea.

2024ko ekintzak:

- Energia kontsumoa murriztu da (2024) 2015arekiko: % 42,97
- Energia berriztagarriaren erabilera handitu da: 22 instalazio fotovoltaiko ezarri dira.
- Energia berriztagarrietatik datorren autokontsumoa: % 16,28

